

Zainak: azal grafikoak

Claudia Rebeca Lorenzo

Artista, irakaslea eta ikertzailea Arte Ederren Fakultatean
Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco EHU

HERIOTZA GARAITU ZUEN ANDEREA (indiar tradizioko kontakizuna)

Mandrasen Ashvapti errege onak agintzen zuen, alegia, Sávitri izeneko neskato ederraren aitak. Neskatxa hau, bere jantziengatik, erresumaren harrotasuna baitzen. Ezkontzeko ordua iritsita, aitak printzesaren borondatea ez behartzea erabaki zuen, eta, senarra egoki aukera zezan, plazerezko bidaia bat egitera bultzatu zuen auzoko erresuma batzuetatik.

Baina printzesa jauregira itzuli zenean, senarraren hautatzeak penatu egin zuen aita. Shalv erregeaz eta haren seme Satyavatez hitz egin zion, haiei erresuma kendu zieten eta basoan bizi baitziren. Zorigaiztoko printze hura izan zen printzesak gogokoen izan zuena.

Narad jakintsua, jainkoen mezularia eta Ashvapatiren laguna, alde orotatik saiatu zen neska gaztea Satyavatekin ezkontzetik uxatzen. Mutil gazteari ezin zitzaion inolako akatsik aurpegiratu. Zintzoa, bertutetsua eta ongilea zen. Bere txirotasuna gorabehera, senar bikaina izango zen, une horretatik hamabi hilabetera, madarikazio baten ondorioz, Satyavat halabeharrez hiltzera kondenatua izan ez balitz. Sávitri harekin ezkondu, urtebete barru alargunduko zen.

Ashvapati erregea, orduan, bere alaba konbentzitzen saiatu zen beste aukera bat egin zezan eta Satyavat ahantz zezan, nahiz eta bertutetsua izan, baina dena alferrik izan zen.

–Ez dut zure aholkua jarraituko, aita –ihardetsi zuen printzesa gazteak irmo erabakita–. Satyavat senartzat hartu dut bihotzean, eta ezerk ez dit iritzia aldaraziko. Bizitza luzea edo laburra izango du, baina elkarrekin igaroko dugu. Basoetan biziko naiz berarekin eta emazte zein bikotekide gisa zerbitzatuko dut. Zure bedeinkapena ez ukatzea besterik ez dizut eskatzen.

Aita oso minbera geratu zen hitz horiekin, baina alabaren erabakia errespetatu zuen, bedeinkapena eman zion eta senarraren bila joateko baimena eman zion.

Styavatekin ezkondu ondoren, hamabi hilabetez basoan bizi izan zen Sávitri. Han senarra eta haren aita zaintzen ziharduen –itsu zegoen Shalv erregea–, eta handia izan zen haien zoriona.

Baina, bere alaitasunean, Narad jakintsuaren hitzen mehatxua sentitzen zuen Sávitrik, senarrak ezagutzen ez zuena. Profesia beteko zen zoritzarreko data gerturatzen zen heinean, printzesak bere gogoahultzen sentitzen zuen, ez baitzekien nola saihestu etortzeaz zegoen amaiera beldurgarria. Jainkoei eskaintza mota anitz egin zizkien, baina ez zitzaion ezkututzen heriotza errukigabea zela eta ez zutela ezertarako balioko haren penitentziek eta baraualdiek.

Azkenean iritsi zen zorigaiztoko egunaren bezpera. Senarrak adierazi zuen hurrengo goizean basoan sartzeko asmoa zuela egurra biltzeko, eta Sávitrik esan zuen berarekin joateko gogoahultza. Alferrik saiatu zen Sávitri hura uxatzen, lan eskerga eta neketsua baitzen, eta hortaz, egun hura berarekin igarotzen tematu zen.

Basora abiatu ziren biak, eta Satyavat fruituak biltzen aritu zen, emaztea begira zeukan bitartean. Eguerdian zuhaitz handi baten azpian eseri ziren biak atsedean hartzeko, Satyavatek bereziki nekatuta zegoela adierazi baitzuen. Handik gutxira, loaldi goxoa zirudienaren esku malguetan eroria geratu zen. Baina Sávitri okerrenaren beldur izan zen, eta senar maitea ukitu

Artikulu honetarako gomendatutako aipua:

LORENZO, Claudia Rebeca

“Zainak: azal grafikoak”,

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, nº 43, 2025; pp. 129-133. <https://doi.org/10.13140/RG.2.2.28481.01129>

zuen, bere beldurrik ikaragarrienak nola betetzen ziren ikusita. Gorputza hotz eta bizitasun gabe zegoen. Satyavat hila baitzen.

Luzaroan egon zen Sávitrí bere zoritxarraren negarrez, senarraren burua magalean bermaturik. Jarrera horretan igaro zuen arratsaldea, eta ilunabarreko itzalak hasi ziren basoko eguratsa menperatzen.

Orduan, zuhaitz hostotsuen artetik irudi harrigarri bat agertu zen. Gizon handia zen, gorputza berde kolorekoa eta begirada suminkorra zituena. Bere jantziak odola bezain gorriak ziren eta bufalo baten gainean zetorren. Begizta bat zeukan esku batean, eta zinta bestean. Neskak berehala ezagutu zuen: Yama zen, heriotzaren jainkoa.

Hori ikusita, Sávitrí ikaratuta geratu zen; baina ihes egin beharrean, bere senarraren gorputz bizigabeari indar handiagoz eutsi nahi izan zion, une batez oraindik bere ondoan atxikitzeko bezala.

Honela mintzatu zen jainkoa:

–Kendu gorputz horretatik, emakumea. Bere bizitza iraungi egin baita. Ezagutzen zenuen ezer ez da geratzen, haragi eta hezurren bilgarri hutsa baizik. Haren izpiritua nire lokarrian sartua dago, eta nirekin eraman behar dut, min handia ematen badizu ere.

–Bera da daukadan guztia –erantzun zuen minez gainezka– eta ezin izango naiz bizi haren gabezian.

–Hori egiten ikasi beharko duzu –esan zuen Jainkoak–. Buelta emanda, bere bideari ekin zion, Satyavaten bizi-esentzia bere lokarrian itsatsirik zeramala. Laster desagertu zen basoan barrena.

Sávitrík, une batez zalantzan egon ondoren, berarekin joatea erabaki zuen, eta halaxe egin zuen. Emazte leiala jainkoaren atzetik joan zen eternitatea iruditu zitzaion ibilbidean. Bere asmoa senarrarengandik sekula ez aldentzea zen, bizirik edo hilik bazegoen ere.

Ordu askoan ibili ostean, Yama gelditu egin zen eta neskatxari aurre egin zion.

–Itzuli zureetara –agindu zion–. Ez duzu ezer lortuko niri segika. Orain zure alargun betebeharra zure senarraren hileta errituak burutzea eta bere oroimena ohoratzea da. Gainera, hilkorra den inork ezin dit jarraitu zuzentzen naizen leku horretara.

–Ez naiz harengandik aldenduko –izan zen andere irmoaren erantzuna–. Hiru munduetan ez dago legerik emazteari oztopatzen dionik bere senarrari jarraitzeko, edonora doala ere. Jainko bat zara eta indarrez eragotz diezadakezu, baina nik ahalegin guztiak egingo ditut Satyavat ez uzteko.

Yama benetan hunkituta geratu zen fideltasun eta maitasun erakustaldi horrekin, eta, beraz, nolabaik konpentsatu nahi izan zuen zorigaiztoko emakumea.

–Ulertzen dut zure mina, eta heriotza ere bai. Emazte-eredua zara eta dohain batekin bedeinkatuko zintuzket. Nahi duzuna eska diezadakezu, zure senarraren bizitza izan ezik.

–Ez dut ezer eskatuko niretzat –esan zuen Sávitrík–, baina bai nire aitagarreba Shalv erregearentzat. Bere erreinua eta orain semea galtzeaz gain, itsutasunaren gaizotasunak oinazetu egiten du. Nahi baduzu, eman ikusmenaren dohaina.

Jainkoak une batez pentsatu zuen.

–Izan dadila –onartu zuen–. Une honetatik aurrera, Shlav bere gaitzetik sendatuta dago. Itzuli orain berarengana eta zaindu bere zahartzaroan.

Bat-batean, Yamak bere bideari ekin zion barrio.

Handik ordu batzuetara, heriotzaren jainkoak atzera begiratu eta Sávitri atzetik segika zuela ikusi zuen.

–Tematia zara, emakume! Baina zure obsesioak ez dizu ezer gehiagorik balioko. Zinez diotsut ez nauela pozten gizakiak beren maiteengandik bereizteak, baina berez bete beharreko legea da. Ulertzen dut zure mina eta, zure galera konpentsatzeko, dohain berri bat emango dizut. Eskatu zure kaiera, baldin eta zure senarraren bizitza ez bada.

Sávitrik arestiko hitzak errepikatu zituen.

–Nik ez dut ezer nahi, Yama handia! Baina aitagarreba subirano gorena izan zen garai batean. Gero, etsaiek beren erresuma eta aberastasunak kendu zizkioten. Itzul ditzakezu.

–Emazte-modeloa ez ezik, alaba-modeloa zara –esan zuen jainkoak–. Eskatzen didazun dohaina ematen dizut. Shlav errege izango da berriro bere erresuman. Baina orain utzi zure ahalegina eta itzuli zure urratsetara, ia lurpeko munduaren sarrerara iritsi garelako, non izaki bizidunak ezin diren sartu. Ni haraino jarraitzen saiatzen bazara, heriotza aurkituko duzu eta, hala ere, ez duzu nahi duzuna lortuko.

Hori esanda, Yamak bidea hartu zuen berriz ere. Baina alargun gazteak jarraitu egin zion.

Hildakoen munduko ateetara iristean, Yamak bufaloa geldiarazi eta berriro hitz egin zion emakumeari:

–Inoiz ez da emakumerik iritsi honaino. Inork ez du bere senarra maite izan, zuk zurea maite izan duzun bezala, aitortzen dut. Zure ekintzek hunkitu egiten naute. Baina ni ez naiz nor munduko arauak aldatzeko. Zure fideltasunak saria merezi du eta orain azken dohaina emango dizut. Baina badakizu zer ezin duzun eskatu.

Orduan Sávitrik bere guraria adierazi zuen.

–Begiak eta tronua itzuli dizkiozu nire aitagarrebari –esan zuen–. Orain eskatzen dizudana da haren izena babes dezazula, inoiz ez dadin lur gainean iraungi, eta haren ondorengoak bidezko errege izan daitezela, haren mendekoak maita ditzatela eta oparotasuna erreinura ekar dezatela.

–Izan dadila –esan zuen Yamak–, bideari jarraikiz.

–Baina nola lortuko da hori? –galdetu zion neskatxak, geldiaraziz–. Nola izango ditu ondorengoak Shlav jaunak, bere seme bakarraren bizitza eramaten baduzu? Dohain bat eman didazu. Jainko hitza eman didazu. Orain aldiz, bete beharreko hitzari uko egitea edota konpliztea dagokizu.

Yamak amore eman behar izan zuen neskatxaren ekinaren eta leialtasunaren aurrean.

–Nire hitzari eutsiko diot –adierazi zuen–, eta zure senarra berriro biziko da zure baitan bere leinua iraunaraziko duten haurrak sortzeko, zure maitasunak, emakumea, heriotza bera ere garaitu baitu.


(Mahâbhâratatik Vyâsarena)

REFERENCIA BIBLIOGRÁFICA

GALLUD JARDIEL, Enrique. *Cuentos de amor de la antigua India*, Hiperión Ediciones, Madrid, 2005; 23-28. orr.

*

Aurreko eta atzeko azaleko irudiak: *Variations about u* serieko artelanak (2024/2025).



Irudia 1

Azalen kokapenaren adibidea. Claudia Rebeca Lorenzo

Jatorrizkoa: *Variations about u*, 2024/2025. Argizari oleotsua fotokopia gainean (25 x 18.5 cm.)

